

BILBO ESKOLATIK ANTZERKIRA

2021 -2022

BILBOKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES DE BILBAO

MITUSU

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES

B

Bilbao

ILARGIA IBAIA

Material pedagogikoa

Antolatzaileak / Organizan

MITUSU

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES

Bilbao

Dirulaguntzaileak / Patrocinan



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTE

inaem

INSTITUTO NACIONAL DE
LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Laguntzailea / Colabora

**AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO**

Bazkidea / Asociado

BIARGI SAREA

“ILARGIZKO IBAIA” TXOSTEN PEDAGOGIKOA

DANTZA GARAIKIDEAREN IKUSKIZUNA

IRAUPENA: 38 minutu

Umeez atsedean eta aisialdirako, jolasteko eta haien adineko jolaserako ekintzetan eta artea eta kultura aske parte hartzeko eskubidea dute. Estatu kideek, umeez libreaki bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko daukaten eskubidea errespetatu eta sustatuko dute eta berdintasun baldintzetan aukera ezberdinak eskainiko dituzte.

*(Nazio Batuen Umeen Eskubideen Adierazpen
Unibertsalaren 31.Artikulua)*

LEKUA ETA PERTSONA KOPURUA

Publikoa umeez osatuta dagoenean, tokiaren dimentsioek eta publikoaren beraren esentziak behar jakin batzuk sortzen dituzte.

Umeei zuzendutako ikuskizunetan beharrezkoa da pertsona kopurua mugatzea ikuskizunarekin hurbiltasuna eta enpatia sortzeko eta ikusleen pertzepzioaren kalitatea bermatzeko. Zentzu horretan, “Ilargizko Ibaia”-k



ikuskizunaren antzezpenerako bi aukera eskaintzen ditu, horietako bakoitza, ikustera joango diren ikusleen adinean pentsatuta egin direlarik. “Ilargizko Ibaia” zuzentzen den lehen adin taldea, Ourtetik 3 urtetarainoko umeez dira. Kasu honetan, ikuskizunak, pertsona kopuru mugatua izango du, 70 pertsona inguru eta horren helburu nagusia txikienekin enpatia eta

intimitatea lortzea da. Ikusleak dantzariekin batera eszenatokian jarriko dira. Horrela, umeak eszenatokian gertatzen ari denarekin hurbiltasuna eta gogokidetasuna sentituko du, haurrak esku hartzen duela sentituko du eta era zuzenago batean izango da partaide, bere arreta askoz gehiago erakarriz.

Beste alde batetik, "Ilargizko Ibaia" ikuskizuna 4 urtetik 8 urterainoko ume eta publiko familiarrarentzat eginda dago. Kasu honetan, formatua handiagoa da eta ikusleak besaulki-patioan eseriko dira, tokian sartzen diren pertsona kopurua bete arte.

AURREKARIAK

DA.TE DANZA ® Granadan, 1999ko urrian, sortu zen Omar Mezaren zuzendaritzapean. Granadatik, Dantza Garaikidea sustatzeko ilusio eta nahiarekin sortu zen, umeak eta gazteak dantzaren oinarrietan hezteko. Harrezkero, kalitate artistikodun 12 ikuskizun arrakastatsu estreinatu dira.

2010 urterako, DA.TE DANZA-k Lehen Haurtzaroarentzat (0 urtetik 3 urtera) zuzendutako produkzio berri bat planteatuko du, "Ilargizko Ibaia" titulua duena. 2003. urtetik, konpainia honek haurrentzat diren produkzioei zuzenduta dagoen lan ildoak garatu du, gure herrialdean ikusle hauentzat ikuskizunak egiten dituen konpainia aitzindaria delarik. Lehen haurtzaroari zuzendutako aurretiko proiektuak, hala nola, **Mua Mua** (2003), **Tondo Redondo**(2006), **Oh..mar!** (2007) eta **Sueña** (2008) nazioarteko merkatu eszenikoan eta merkatu eszeniko nazionalean agertzea posible egin dute, berezko arrasto nahastezinari esker. Azken hiru urteotan, (2007ko urritik 2010eko abuztua arte) datu esanguratsua da konpainiak egin dituen 494 ikuskizunetatik, horietako 355 Lehen Haurtzarora zuzenduta daudela, datu horrek, epe horretan zehar egin diren ikuskizunen %72a suposatuko duelarik.

Lanaren zorroztasun eta eszenaratzearen sentsibilitateari esker, DA.TE DANZA®, dantza garaikidearen eremuan, kalitatearen erreferentzia bilakatu da. Honen helburuak, jadanik lortutako exigentzia-maila mantentzea eta konpiniaren etorkizuneko ikuskizunetan, haien lana eta adimena islatu nahi duten musikari, margolari, dramagile eta eszenografoekin elkarlanean aritzea dira.

AURKEZPENA

Aurrekariak kontuan hartuta, *“Ilargizko Ibaia”* txikientzat aztertzen jarraitu eta sakontzeko produkzio gisa planteatzen da.

Energia positiboaz kargatutako ikuskizuna da, komunikazioaren kontzeptutik, era zuzenean, lehenik eta behin haurra eta amaren artean eta ondoren, haur baten eta beste baten artean sortuko den elkarriketatik abiatuko dena.

Mundu honetara heltzen garenean, gizakiok ditugun kanal eta komunikazio baliabideak aztertzen dituen ikuskizuna da. *Ilargizko Ibaiak* haurren arteko ulermena, gogokidetasuna, haien arteko eta inguruarekin duten elkarriketa gaitasuna antzeztuko du. Nola begiratzen diren eta nola begiradekin eta keinuekin elkarren artean aurkitzeko gai diren.



Lehen Haurtzarorako egindako aurreko proiektuen ildo berean, ikuskizun honek, Haur Eskoletako irakasleentzat lagungarri izango den material pedagogikoa dauka, antzezpena baino lehenago eta geroago antzezlanaz gozatu eta honen ulermena areagotu eta osatzeko. Material pedagogikoaren edukia, irakasleen trebakuntzan eta hurrei orokorrean eta bereziki dantza-ikuskizunei zuzenduta dauden ikuskizunen egokitasunari buruzko kontzientzia sortzean oinarrituta dago. Ondorioz, hurrei zuzendutako ikuskizunei eta gorputz hizkuntza adierazpen-baliabide eta irakasle-lanabes gisa garatzeari buruzko analisi teorikoa sustatuko da.

SORTZE-PROZESUA

Proiektu honetarako, dantzarietako bik eta zuzendari artistikoak Granadako Arlequin Haur-eskola bisitatu zuten, umeen portaera, jokoak eta umeek elkarren artean duten erlazionatzeko era behatzeko. Zerk deitzen dien edo zerk galarazten dien arreta, elkarren arteko komunikazioa ... Hau guztia, lan egiteko materiala eta berarentzat eta haurtzaroaren mundutik sortu eta lan egiteko material bilakatu da.

Hau guztia, etengabeko ikerlanari eta urteetan zehar, haurtzarorako sortze prozesuetan egindako lanari gehituta, hau bezalako ikuskizun berezia bilakatuko da.

“ILARGIZKO IBAIA” ETA HAURRAK

Ezinbestekoa da umeak prestatzea, dantza garaikidearen ikuskizun bat ikusteko, bere hizkuntza, dantza-hizkuntza bezala ezohikoa baita. Antzerti-hizkuntzara eta ahozko narratziora ohituta gaude (konbentzionala dena), ez ordea, bide intelektualera; abstrakzioa, sentimenduen eta gorputz-hizkuntzara.

Hemen, gorputzaren hizkuntza mugimendu garaikidea da, arketipoetatik aldentuta eta emozio errealetatik hurbilago. Dantzak, pertsonaiak bizitzen ari direna, gertatzen ari dena komunikatzen du. Dantzarien ezaugarria mugitzeko era da eta nor den nor bereizi ahal dugu. Mugimenduaren kalitate eta nolakotasunak, horiek nola sentitzen diren adierazten dute. Giza izpiritua, gorputzak tokiarekin duen harremanean eta akzio-erreakzio-energia elkarrekikotasunean islatzen da.

Ikuskizun osoa umeak erakartzeko pentsatuta dago. Ekintza bakoitzaren iraupena pentsatuta dago umeak ekintza horretan gogoan jartzeko eta interesa ez galtzeko behar duen denbora kontuan hartuz. Argizapenaren diseinuak eta koloreek ere, umeak, ikuskizun bat ikusterakoan duen kontzentrazio-denbora eta gaitasunarekin batera lan egiten dute.



“Ilargizko Ibaia”, erreka bat bezala, jario eta hazi egiten da, bakunetik konplexuena sortzen da. Umeak, pertsonak nola erlazionatu, komunikatu eta ulertzen diren behatuko du, mugimenduekin, keinuekin, ura eta musikaren soinuak lengoia berezia sortuko dute.

Lehen kontaktua geldoa eta lasaia da, umeak eserlekuetan kokatuko dira eta eszenatokia eta bertan dagoena behatuko dute, musika entzuten duten bitartean. Globo zuria bi daude erdian plastikozko oihal batetik zintzilik eta esfera txiki bat. Zer esanahi du? Zer forma hartuko du? Txikienek, toki ezezagun bati beldurra galtzea eta haien jakinmina piztea da asmoa.

Musika entzuten hasiko dira eta bi dantzari eszenatokian agertuko dira. Ikusleak behatuko dituzte, zerbait magikoa gertatuko dela kontatuko digutelako. Umea lasaituko da eta erabiliko diren kolore, mugimendu eta objektuetan kontzentratuko da.

Ikusleen etengabeko arreta piztuko duen erritmo batekin sekuentzia ezberdinak garatuko dira. Mugimendu geldo eta leunekin egindako koreografiak toki desberdinetan eta hainbat objektuekin garatuko dira: musika-kaxa batekin, plastikozko itsaso handi batekin, urez eta argiz betetako esfera batekin. Fantastiko bilakatu diren objektu sinpleak eta

mugimenduz eta argiz beteta. Dantza-sekuentzien bat-egitea, elementu eta kolore berriak aurkituko diren momentuan gertatuko da, dena dantzarien arteko jokoa da.

Joko honetan, jaiotzaren metafora agertzen da eta umea eta helduarentzat era ezagunean garatuko den bizitza berri bat sortuko da. Jaiotza, umea eta amaren arteko gogokidetasuna. Mugimenduaren hizkuntza beste ildo batetik doa, lehen pausuak, naturarekin jolasak, umetxoak haien artean ezagutzea, haien ingurunea eta hazte-prozesua. Oihalak eta globoak igotzen dira, plastikozko oihaletan irudiak agertzen dira eta eszena aldatzen da, beste itxura bat hartzen du, hazten da.

Azkenik, dantzariak izango dira gure ikusle txiki apartengana ibaia ekarriko



dutenak eta umeak beste ibai batetik sortutako ur ezberdin bat begiztatuko du, denak du beste lengoaia bat eszenatokian eta dantzan.

Biziaren ibaia da, bizitzaren zikloa, ilargia so dugula.

**ASMOEN ADIERAZPEN
BAT**

**LEHEN HAURTZAROAN
ARTEAK DUEN FUNTZIOA**

DA.TE DANZA helburu
komun bat lortzeko batera

lan egiten duten pertsonen elkartasuna da. Hizkera arruntean: dantzagatik, dantza-munduan lan egiteko, eszenatokira igotzerakoan guk eszenan eta eszenagatik sentitzen dugun grina ikusleei sentiarazteagatik ahal dugun guztia egiten dugu.

Hasieratik, konpainiak bikaintasun artistikoa lortu nahi du maila guztietan: artistikoan, teknikoan eta kudeaketan. Kalitate hau profesional adituekin eta arte eszenikoetan egiten den benetako inbertsioa pertsonetan egiten dela kontzientzia hartuz soilik lor daiteke, hauek izango baitira ikuskizunen produkzioei benetako balioa emango diotenak.

DA.TE DANZA-k, dantza hizkuntza gisa duen ikuspegian hezkuntza balioa islatuta dago. Konpainiak, artea, elementu sozializataile gisa proposatzen du. Konpainiako ikuskizunek, ikusleengan, beste ikuspuntu batzuk, mundua ulertu eta baloratzeko beste ikuspegi batzuk sortarazi nahi dituzte, ikusleen kontzientzia astindu nahi da, egungo gaiak landuz. Dantzatu dantzatzearren baino, zerbait probokatzeko, taldearen subkontzientea astintzeko gai izango diren istorio interesgarriak kontatzeko(ikuskizun bakoitza zuzenduta dagoen pertsonen adina inoiz ahaztu gabe) dantzatuko dugu.

Ikuslerik gabe ez dago ikuskizunik eta ikusleen errespeturik gabe ez dago arterik. Egiten dugun guztiaren helburua, ikuslea, lan sortzailearekin harremanetan jartzea da. Beraz, hau, ikuskizunaren izatearen arrazoia bilakatuko da. Ume eta gazteek bizi diren munduaren errealitatea ezagutu eta sortzen diren eztabaidetan esku hartzeko eskubidea daukate.

Haurrei, 0 urtetik 5 urtekoei zuzendutako ikuskizunak parametro berdinak erabiliz egingo dira. Kasu honetan egingo dira ahalegin gehienak, umeak, lehen aldiz beharbada, antzertira joateko baldintzak hobetzeko xedearekin.

TOKIA ETA PERTSONA KOPURUA

Publikoa umeez osatuta dagoenean, tokiaren dimentsioek eta publikoaren beraren esentziak, behar jakin batzuk sortzen dituzte.

Lehen Haurtzaroarentzat zuzenduta dauden ikuskizunetan beharrezkoa da pertsona kopurua mugatzea ikuskizunarekin hurbiltasuna eta enpatia bermatzeko eta ikusleen pertzepzioaren kalitatea bermatzeko. Zentzu honetan, "Ilargizko Ibaia", pertsona kopuru jakin baten aurrean antzetzeko pentsatuta dagoen ikuskizuna da,



70 pertsona inguru, txikienekin intimitate eta enpatia hori lortzeko helburua baitu.

Gurasoak eta irakasleak umeekin joan daitezke, ikuskizunaren hasieran emango diren arauak errespetatzen dituzten bitartean.

FITXA ARTISTIKOA

Dantzariak **Rosa Mari Herrador e Iván Montardit**

Zuzendaritza: **Omar Meza**

Keinuzko mugimenduak: **Colectiva**

Koreografia laguntzailea: **Celia Sako**

Antzerkigintzan laguntzailea: **Carlos Herans**

Musika-konposizioa: **Jesús Fernández/ José Perelló**

Arropa: **Javier Casero**

Argitzapena: **Ernesto Monza**

Irudien diseinua eta horma-irudiak egitea: **Graficas Granada SL.**

Produkzio exekutiboa: **Laura Campoy**

Produkzio laguntzailea: **Cristina Vílchez**

Argazkigintza: **Ruperto Leal**

Bideoa: **Carvansar producciones y Rec Over**

